**Egutegia eta maiztasuna:** epe laburrean neurria ez da martxan jarriko, epe ertainean (2013-2016) udalerriko ibilgailu parkearen %2a bioerregaiak kontsumitzea aurreikusten da, %4ra epe luzean (2017-2020) iritsiz.



**Adierazlea:** aukeratutako adierazlea udalerriko ibilgailu parkean bioerregaiak kontsumitzen dituzten ibilgailuen ehunekoa da.

**Neurriaren emaitza:** 2020 urtean neurri honen ezarpenaren ondorioz, 1.081.635 kWh<sub>PCS</sub> aurreztuko direla aurreikusten da.

**Neurriaren kostua:** EEEK dioenez, biodiesela eta bioetanola kontsumitzen dituzten ibilgailuek ez dute gainkosturik, beraz neurriak kostu gehigarririk ez duela onartzen da, EIEPa aurrera eraman ez arren ibilgailu partea, halaber, berrituko litzatekeelako.



**43. Neurria: Herri historikoaren peatonalizazioa gauzatu, motordun garraiobideen sarrera kontrolatuz.**

**Neurriaren helburua:** mugikortasun jasangarria sustatu nahian, kotxez egiten diren barne desplazamenduak %22ean murriztuko dira.

**Abiapuntua:** 6.300 barne desplazamendu baino gehiago kotxez egiten dira, gehienak, gainera, kilometro bat baino gutxiagokoak izanda.

**Neurriaren hipotesia:** Hondarribiko mugikortasun azterlanean ikusi daitekeenez, bertan egindako desplazamenduen %44a oinez egiten dira. Honek desplazamendu modu hau hobetzeko apustua justifikatzen du oinezkoen zonalde berriak sustatuz.

Oinezkoen sustapenerako herrialdean aurrera eraman diren ekintzei esker eta mugikortasun iraunkorraren aldeko sentsibilizazio kanpainei esker, herrialdean gertatzen diren kotxe bidezko 6.300 desplazamenduetatik, %22a oinezko mugikortasuna izatera pasatzea aurreikusten da 2020 urterako.

Oinezkoen sustapenerako, alde batetik, eskailera mekanikoak eraikiko dira, eta bestaldetik, Sabino Arana igogailua jarriko da martxan.

Eskailera mekanikoen eragina estimatzeko, Campiña auzoan bizi den biztanleriaren %10ak ibilgailua herri gunera jaisteko erabili ordez, eskailera mekanikoa erabiltzen duela onartu da, urtean 550 ibilgailuen desplazamenduak ekidituz. Halaber, desplazamendu hauen distantzia 1,6 km-tan estimatu dira urteko egun guztietan.

Igogailuaren ezarpenak 2020 urterako izango duen eragina estimatzeko igogailuaren erabilera datuetatik abiatu da estimazioa. Udaleko datuen arabera, batzabeste egunean 516 erabilera (ez erabiltzaile) izan ditu igogailuak. Ekiditutako erregai kontsumoa estimatzeko, erabilera horietatik %50a aurretik ibilgailuz egingo zela onartu da. Desplazamendu bakoitzeko ekidindako distantzia 0,65 km-tan estimatu da, urte guztian.

Azkenik, mugikortasun eraginkorrerako kanpainei esker, kotxez eginiko desplazamenduak %10ean murriztea espero da. Ekiditutako distantzia 2 kilometrotan estimatzen da eta urteko lanegunak (249) hartu dira erreferentziazat.

Hurrengo taulan erabilitako datu ezberdinak adierazten dira.

Ekintza	Kontzeptua	Balioa	Iturria
Eskailera elektrikoen ezarpena eta bere eraginak	Ibilgailuz ekiditutako distantzia	1,6 km/desplazamendu	Hondarribiko Udala
	Campiña auzoko biztanleria	5.500	Lanketa propioa
	Ekidituko diren desplazamenduak (biztanleen ehunekoa)	%10	Helburua
	Urteko erabilera egunak	365	Hondarribiako Udala
Iggogailuaren ezarpena eta bere eraginak	Ibilgailuz ekiditutako distantzia	0,65 km/desplazamendu	Hondarribiako Udala
	Erabilerak egunean	516	Hondarribiako Udala
	Lehen kotxez zebilen portzentaia	%50	Hondarribiako Udala
Oinezkoen sustapena	Barne desplazamenduak kotxez	6.300	Hondarribiko mugikortasun azterlana
	Barne desplazamenduak kotxez, eskailera mekanikoak eta igogailuak martxan jarri ondoren	5.492	Lanketa propioa
	Espero den murrizpena	%10a	Hondarribiko Udala
	Distantziak egunean	2 km/desplazamendu	Hondarribiko mugikortasun azterlana
	Lanegunak	249	Euskadi.net
Ekintza guztietan	Gasolio turismoen ehunekoa	%45	DGT
	Gasolina turismoen ehunekoa	%55	DGT

**Egutegia eta maiztasuna:** epe laburrean (2007-2012) kotxez egindako barne desplazamenduen %5a oinez egitea aurreikusten da, epe ertainean (2013-2016) eta epe luzean (2017-2020) %7ra eta %10rera heltzea hurrenez hurren aurreikusten da. Bestalde, igogailu eta eskailerak epe motzean martxan jarriko dira.

**Adierazlea:** kotxez egiten diren barne desplazamenduen portzentaiaren murrizketa.

**Neurriaren emaitza:** oinezkoen zonalde berrien sustapenaren ondorioz, 2020 urterako 484.744 kWh<sub>PCS</sub> aurrezpena estimatzen da.

**Neurriaren kostua:** igogailu eta eskailera elektrikoaren kostuak 3.044.658 €-tako izan da, udal datuen arabera.

**44. Neurria: Garraio publikoaren hobetzea, linea berriekin, ordutegi moldaketarekin, zerbitzuen emendatzearekin, etab.**

**Neurriaren helburua:** garraio publikoaren erabilera %70ean areagotzea 2020an.

**Abiapuntua:** 2007 urtean, Lurraldebus zerbitzua martxan jarri zenean, Hondarribitik Donostiara doan autobus zerbitzua 1.130.821 erabiltzaile izan zituen.

**Neurriaren hipotesia:** Zerbitzuaren hobekuntzagatik 2012 urtean erabiltzaileak areagotu joan dira %65ean. 2020 urterako erabiltzaileak %70eraino areagotzea espero da.

2020 urterako aurreikusitako bidaiarietatik (791.575), autobusa erabili aurretik % 49,3a ibilgailuz desplazatuko zela onartu da. Ibilgailuko Euskadin estimatutako pertsona kopurua kontuan hartuz, ekidingo diren ibilgailu desplazamenduak estimatu dira (235.088 urtean). Hauetatik, %45a gasolio eta %55a gasolina ibilgailuak direla onartu da, Eustat-eko datuetan oinarrituz, eta desplazamenduaren distantzia 23 km-tan estimatu da (Hondarribitik Donostiarako bidea). Erregaien dentsitate datuak erabilita (eranskinen amaieran laburturik agertzen dira), aurreztutako erregai kopurua estimatu da.

Hurrengo taulan aurrezpenak estimatzeko erabilitako datu ezberdinak adierazten dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
2020 urterako aurreikusitako bidaiariak	791.575	helburua
16 urte baino helduagoen artean ibilgailu pribatuaren erabilera (%)	49,3	EUSTAT
Erabiltzaileak ibilgailuko	1,66	GARRAIO JASANGARRIAREN GIDAPLANA. EUSKADIKO GARRAIOEI BURUZKO POLITIKA 2.002 - 2.012.
Gasolio ibilgailuak Hondarribian (%)	% 45	DGT
Gasolina ibilgailuak Hondarribian (%)	% 55	DGT
Gasolio ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,07	Udalsarea 21
Gasolina ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,09	Udalsarea 21
Ekidindako distantzia desplazamenduko (km)	23	Lanketa propioa

**Egutegia eta maiztasuna:** epe laburrean (2007-2012) bidaiariak %65ean emendatu dira, eta epe motzean %70eraino areagotzea aurreikusten da. Epe luzera bidaiari kopurua konstante mantentzea aurreikusten da.

**Adierazlea:** autobus erabiltzaile kopurua proposatzen da adierazle moduan.



**Neurriaren emaitza:** autobus erabiltzaileen areagotzeagatik 2020 urtean 4.117.308 kWh<sub>PCS</sub>-ko aurrezpena aurreikusten da, beraz, 1.083 tona CO<sub>2</sub> b-ren murrizpena lortuko da.

**Neurriaren kostua:** neurriak ez du kostu zuzenik udalarentzat, Lurraldebus zerbitzuaren ardura Diputazioarena baita.



#### 45. Neurria: Bizikletaren erabilera bultzatzeko ekintzak.

**Neurriaren helburua:** bizikleta bidezko mugikortasuna %0,3tik (Eustat,2008) %1,5era igotzea aurreikusten da 2020 urtean.

**Abiapuntua:** Eustat-eko 2008ko datuen arabera, 10.000 eta 20.000 bitarteko biztanleak dituen herrialdeetan, 16 urte baino gehiago dauzkaten pertsonen artean ohiko bizikletaren erabiltzaileak %0,3ra iristen dira. Hondarribiko kasuan, 2011 urtean, 16 urte baino gehiago dauzkaten biztanleak 13.125 izan ziren, beraz, bizikletaren erabiltzaileak 39 izango litzateke.

**Neurriaren hipotesia:** 2020 urtera arte eraikiko diren bidegorrien eraginez eta udaletik mugikortasun iraunkorraren alde egingo diren ekintza, prestakuntza eta kanpainei esker, udalerriko bizikleta erabiltzaileak %0,3tik, %1,5era igotzea aurreikusten da, 39 erabiltzailetik, 197 erabiltzailerara pasatuz (orain baino 158 erabiltzaile gehiago). Erabiltzaile hauetatik %49,3a lehen ibilgailuz ibiliko zela estimatu da eta ibilgailuko Euskadin 1,66 bidaiari egoten direla kontuan hartu da. Honela, urtean 47 ibilgailuen desplazamenduak ekiditen direla onartu da. Bestalde, ibilgailuko urteko desplazamenduak 2.920 km-tan estimatu dira (2km-tako 4 desplazamendu egunean, 365 egunetan). Gainera, %45a gasolio eta %55a gasolina ibilgailuak direla aintzat hartu da.

Hurrengo taulan aurrezpenak estimatzeko erabilitako datu ezberdinak adierazten dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
2020 urterako aurreikusitako bizikleta erabiltzaileak	197	helburua
16 urte baino helduagoen artean ibilgailu pribatuaren erabilera (%)	49,3	EUSTAT
Erabiltzaileak ibilgailuko	1,66	Garraio Jasangarriaren Gidaplana. Euskadiko Garraioei Buruzko Politika 2002 - 2012
Gasolio ibilgailuak Hondarribian (%)	% 45	DGT
Gasolina ibilgailuak Hondarribian (%)	% 55	DGT
Gasolio ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,07	Udalsarea 21
Gasolina ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,09	Udalsarea 21
Ekidindako distantzia urteko (km)	2.920	Lanketa propioa



**Egutegia eta maiztasuna:** ekintzaren eragina epe ertainetik aurrera aurreikusten da. Honela, epe ertainean bizikleta bidezko herriko mugikortasuna %1era areagotzea aurreikusten da, eta epe luzerako %1,5ra iristea.

**Adierazlea:** neurriaren jarraipena erraztearren, adierazle moduan 16 urte baino helduagoen artean mugikortasunerako bizikleta erabiltzen dutenen portzentaia (%) proposatzen da.

**Neurriaren emaitza:** bizikletaz dabiltzan pertsonak areagotzeagatik 2020 urtean 104.097 kWh<sub>PCS</sub>-ko aurrezpena aurreikusten da, beraz, 27,37 tona CO<sub>2</sub> b-ren murrizpena lortuko da.

**Neurriaren kostua:** Bidegorriaren eraikuntza lanak 400.000 eurotan estimatzen ditu Hondarribiko Udalak.

#### 46. Neurria: Oinezko eta bizikleta bidezko eskolarako joan-etorrien sustapena.

**Neurriaren helburua:** ikasleen %10aren eskolara kotxez joateko ohitura aldatzea, eskoletara oinez joateko joerak bultzatuz.

**Abiapuntua:** oinarri urtean ez zegoen martxan honako ekimena.

**Neurriaren hipotesia:** Hondarribiko haur eta lehen hezkuntzako ikasle kopurutik abiatuz, 2020 urterako %10ak mugikortasun ekimen honetan parte hartuko duela onartu da, hots, ibilgailu pribatuaz burututako 185 desplazamendu ekidingo dira eskola egunetan. Halaber, ibilgailu hauen %45a gasolio eta %55a gasolina ibilgailuak direla hartu da kontuan eta ekidindako distantzia 3 kilometrotakoa izango dela (kotxez egiten zen ibilbidea oinez egiten dena baino apur bat luzeagoa dela estimatzen delako). Honela, urtean aurreztutako erregai litro kopurua estimatu da, aurreikusitako energia eta honi loturiko NEG isurpenak kalkulatu.

Hurrengo taulan aurrezpenak estimatzeko erabilitako datu ezberdinak adierazten dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Eskola egunetan ekidingo diren desplazamenduak	185	Hondarribiko Udala
Distantziak egunean	3 km	Hondarribiko mugikortasun azterlana
Eskola egunak	192	Euskadi.net
Gasolio ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,07	Udalsarea 21
Gasolina ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,09	Udalsarea 21
Gasolio turismoen ehunekoa	%45	DGT
Gasolina turismoen ehunekoa	%55	DGT

**Egutegia eta maiztasuna:** epe laburrean (2007-2012) kotxez egindako barne desplazamenduen %3a oinez egitea aurreikusten da, epe ertainean (2013-2016) eta epe luzean (2017-2020) %6ra eta %10ra heltzera hurrenez hurren aurreikusten da.

**Adierazlea:** Ekimenean parte hartzen duten ikasle kopura aukeratu da adierazle gisa.

**Neurriaren emaitza:** oinezkoen zonalde berrien sustapenaren ondorioz, 2020 urterako 81.950 kWh<sub>PCS</sub> aurrezpena estimatzen da.

**Neurriaren kostua:** ekintzak ez du kosterik.

#### 47. Neurria: Mugikortasun iraunkorraren aldeko prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak.

**Neurriaren helburua:** urtero udalerriko biztanleriaren %10ari bideratutako mugikortasun prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea.

**Abiapuntua:** Oinarri urtean ez zen sentsibilizazio kanpainarik egin.

**Neurriaren hipotesia:** prestakuntza ekintzek eta sentsibilizazio kanpainek modu ez zuzenean aurreko neurri guztien gauzatzea ahalbidetuko dute, elementu sustatzaile moduan. Dena dela, neurriari aurrezpen bat esleitzen zaio, gidatze eraginkorraren aldeko prestakuntzagatik. Kalkuluak egiteko, prestakuntza burutzen duen gidari bakoitzeko erregai kontsumoa %7,5ean murrizten dela kontuan hartu da (Eco-driving). 2020 urtera Hondarribiko gidarien %10ari prestakuntza eskaintzea proposatzen da, hots, 730 bat biztanleei. Hauetatik, %45a gasolio eta %55a gasolina ibilgailuak direla aintzat hartuz, eta ibilgailuen urteko batazbesteko distantzietan (Udalsarea 21), urtean aurreztutako erregai litro kopurua estimatu da. Honela, aurreztutako energia kWh<sub>PCS</sub>-ak eta murriztutako NEG isurpenak lortu dira.

Hurrengo taulan aurrezpenak estimatzeko erabilitako datu ezberdinak adierazten dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Erregai aurrezpena gidari bakoitzeko	%7,5	Eco-Driving
Prestakuntzan parte hartuko duten gidarian	%10 (730)	Helburua
Gasolio turismoen ehunekoa	%45	DGT
Gasolina turismoen ehunekoa	%55	DGT
Gasolio ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,07	Udalsarea 21
Gasolina ibilgailuen kontsumoa (l/km)	0,09	Udalsarea 21
Gasolio ibilgailuen urteko distantzia	14.000	Udalsarea 21
Gasolina ibilgailuen urteko distantzia	6.500	Udalsarea 21

**Egutegia eta maiztasuna:** prestakuntza ekintzak eta sentsibilizazio kanpainak urtero gauzatuko dira epe ertainetik aurrera (2013-2016). Gidatze eraginkorraren inguruan urtero 105 gidariekin prestakuntza aurrera eramatea aurreikusten da.

**Adierazlea:** sentsibilizazio kanpaina eta prestakuntza ekintzetan parte hartu duten biztanleak.



**Neurriaren emaitza:** gidatze eraginkorrarengatik loturik emaitzen ondorioz, 2020 urtean, 401.379 kWh<sub>PCS</sub>-ko aurrezpena lortzea aurreikusten da. Honi esker, 106,4 tCO<sub>2</sub>b-ren isurpena ekidituko da.

**Neurriaren kostua:** Urtero burutuko diren ekintzen aurrekontua 6.000 eurotan estimatzen da (42.000 € guztira).



## Hondakinak

### 48. Neurria: Herriko hondakinen sorrera murriztearen aldeko sentsibilizazio kanpainak.

**Neurriaren helburua:** Hondarribiko hondakin gai bakoitzaren banaketa selektiboaren portzentaiak areagotzea.

**Abiapuntua:** Txingudiko zerbitzuetatik eskuratutako datuen arabera, 2007 urtean 8.262 tona hondakin jaso ziren, hauetatik 6.945 zabortegira eraman zirelarik. Banaka sailkatutako gaien datuak jarraian laburtzen dira:

**Neurriaren hipotesia:** Hondarribiko udalak burutuko dituen kanpaina eta martxan jarriko duen bilketa sistema berriarekin, hondakin gai desberdinen bilketa portzentaiak areagotzea estimatzen du. 2020 urterako INEk aurreikusitako biztanleria ezagutuz eta hondakinen konposizioa aldatzen ez dela kontuan hartuz<sup>3</sup>, 2020 urteko bi egoera estimatu dira, joerazko egoera eta neurriaren egoera. Helburu bezala, udalerrian sortutako paperaren %75, beiraren %88 eta ontzien %90a jasotzea da, baita sortutako gai organikoaren %15a konposta egiteko biltzea.

Isurpenak kalkulatzeko Udalsareako Udalsarea 21 Lan-Koadernoko 5. zenbakian deskribatutako metodologia jarraitu da.

Jarraian bi eszenatokiekin lortutako emaitzak agertzen dira:

Kontzeptua	Eszenatokiak	
	Gaur egungo birziklapen portzentaiak mantenduta	Birziklapen portzentaiak areagotuta
Sortutako hondakin kopuru osoa (tona)	7.414	7.414
Era bananduan jasotako hondakin kopurua (tona)	1.588	3.258
Sortutako NEG isurpenak (t CO <sub>2</sub> )	10.541	7.312

**Egutegia eta maiztasuna:** gaikako banaketarako sistemaren proba pilotua epe ertainean aurreikusten da (2013-2016). Bestalde, hondakinen inguruko sentsibilizazio ekintzak bi urtetik behin aurrera eramatea proposatzen da.

<sup>3</sup> Hondakinen konposizio datuak Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeatzeko Plan Orokorretik lortu dira.



**Adierazlea:** neurriaren jarraipena errazteko adierazle bezala zabortegira bidaltzen den HHS (t) identifikatu da.

**Neurriaren emaitza:** Udalsareako Erreminta erabiliz, zabortegiaren erabilerak 2020 urtean 3.229 tona CO<sub>2</sub> gutxiago isurituko ditu birziklapen tasak areagotzeagatik.

**Neurriaren kostua:** Sentsibilizazio kanpainengatik 26.400 € estimatzen dira denboraldi osoan. Bestalde, bilketa sistema berriaren kostuaren datuak ezin dira ezagutu, fase froga guztiak pasa eta ezarri arte.



## Ura

### 49. Neurria: Ura modu eraginkorren erabiltzen duten etxetresnen erosketa eta txorrota murrizgailuen erabilera sustatzea.

**Neurriaren helburua:** Hondarribiko etxebizitzetan %30ean txorrota murrizgailuak ipintzea.

Abiapuntua: Hondarribiko etxebizitzetan ur kontsumoa  $810.612 \text{ m}^3$ -takoa izan zen 2007 urtean.

**Neurriaren hipotesia:** herritarren artean ura aurreztearen aldeko kanpainak sustatuko dira eta txorrota murrizgailuen ezarpena sustatuko da. Hondarribiko etxebizitzetan %30 behintzat, jardunbide egokiak jarraitzea eta txorrota murrizgailuan ipintzea espero da. Honela, etxebizitza hauetan ur kontsumoa %30ean murriztea espero da. Bestalde, ur hornidura sarearen zikloan gertaturiko energia kontsumoa dela eta,  $7 \text{ kgCO}_2/\text{m}^3$ <sup>4</sup> isurpena estimatzen da.

**Egutegia eta maiztasuna:** epe laburrean ez da ekintzarik aurreikusten. Epe ertainean (2013-2016) udalerriko etxebizitzetan % 15a txorrota murrizgailuak ipintzea aurreikusten da eta epe luzean (2017-2020) udalerriko etxebizitzetan %30a txorrota murrizgailuak ipintzera espero da.

**Adierazlea:** neurriaren jarraipena erraztearren bizitegien kontsumoa erabiliko da adierazle moduan.

**Neurriaren emaitza:** ekintzarekin 2020 urterako  $72.955 \text{ m}^3$  ur aurrezteko espero da.

**Neurriaren kostua:** txorrota murrizgailuen kostua  $5,49 \text{ €}$ -tan estimatzen da eta etxebizitzako bi murrizgailu instalatzea aurreikusten da. Honela bizitegien %30ean, hau da 2362 etxebizitzetan, txorrota murrizgailuen ezarpenaren kostua  $25.940 \text{ €}$ -tan estimatzen da.

<sup>4</sup> Grupo de Estudios y Alternativas S.L.





50. Neurria: Uraren aurrezpena bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak etxebizitzetan.

Honako neurria elementu sustatzaile moduan proposatzen da, biztanleak zentzuzko ur kontsumoa eduki dezaten.



## ZERBITZUAK

### Eraginkortasun energetikoa

#### 51. Neurria: Hondarribiko zerbitzu lokaletan, kontsumo baxudun lanparen instalazioa

**Neurriaren helburua:** 25 zerbitzutan (totalaren %5a) kontsumo eraginkorragoko lanparen instalazioa proposatzen da, lanpara inkandeszenteak ordezkatuz.

**Abiapuntua:** gaur eguneko kontsumoa urtero lanpara inkandeszenteetan, 1.564 kWh-koa da.

**Neurriaren hipotesia:** 40W-ko 10 inkandeszente, 8 W-ko kontsumo baxudun lanparengandik eta 18W-dun 8 tutu fluoreszenteak 16W-dun tuboengandik aldatzea proposatzen da.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeke lehenengo denboraldian (2007-2012) ez da neurria aurrera eramango, 13 zerbitzutan epe ertainean (2013-2016) eta 12 zerbitzutan epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaion adierazlea, aldatutako lanpara kopurua eta kontsumo energetikoa izango dira.

**Neurriaren emaitza:** kontsumo eraginkorragoko lanparak instalatzean, kontsumoa 728 kWh/urte-koa izango da. Aurrezpena zerbitzuko, 836 kWh/urte-koa izango da eta neurriaren aurrezpen totala 20.900 kWh/urte-koa 2020 urtean.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Neurria aplikaturiko zerbitzu kopurua	25	Hondarribiko Udala
Aldatutako inkandeszente kopurua zerbitzuko	10	Lanketa propioa
Inkandeszenteen potentzia (W)	40	Lanketa propioa
Kontsumo baxudun lanparen potentzia (W)	11	Lanketa propioa
Funtzionamendu orduak (ordu/urte)	2.732	Hondarribiko Udala
Gaur egungo fluorescente kopurua	8	Hondarribiko Udala
Fluoreszenteen potentzia (W)	18	Lanketa propioa
Proposaturiko potentzia (W)	16	Lanketa propioa
Kontsumoa zerbitzuko (kWh/urte)	1.564	Lanketa propioa
Aurrezpena zerbitzuko (kWh)	836	Lanketa propioa
Aurrezpen totala (kWh)	20.900	Lanketa propioa
Aurrezpena aldatutako W kopuruagatik (kWh/W)	1,9	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 8.000 €-koa da.



**52. Neurria: Hondarribiko zerbitzu-lokaletan, argi naturala modu eraginkorrean erabiltzeko neurriak martxan jarri.**

**Neurriaren helburua:** argi naturala era eraginkorrean erabiltzeko neurriak martxan jarriko dira. Guztira 25 zerbitzu lokaletan egingo da neurria.

**Abiapuntua:** komertzio txikien batz besteko kontsumoa 250 kWh/m<sup>2</sup>-koa dela suposatzen da. Komertzio txikiko batz besteko azalera 90 m<sup>2</sup>-koa da, beraz, kontsumo totala 22.500 kWh-koa izango da. Kontsumo honen %50a argiztapenari atxiki daskioke. Aurreko neurria aplikatu ondoren, zerbitzuko argiztapen kontsumoa 10.414 kWh-koa izango da.

**Neurriaren hipotesia:** suposaturiko aurrezpena, %10ekoa da. Gaur egungo 10 pizte orduetatik, ordu bat itzaliko da.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeke lehenengo denboraldian (2007-2012) ez da neurria aurrera eramango, 13 zerbitzutan epe ertainean (2013-2016) eta 12 zerbitzutan epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaizkion adierazleak, neurria aplikatzea eta energia kontsumoa izango dira.

**Neurriaren emaitza:** neurria aplikatu ondoren, zerbitzuaren kontsumo elektrikoa 9.121 kWh-koa izango da eta zerbitzuko aurrezpena 1.041 kWh-koa izango da. Aurrezpen totala 26.035 kWh-koa izanik.

Hurrengo taulan, gaur egungo kontsumoa, neurria aplikatu ondorengo kontsumoa eta aurrezpen unitario eta totala banakatzen dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Zerbitzu kopurua	25	Hondarribiko Udala
Aurrezpena	%10	Lanketa propioa
Aurrezpena zerbitzuko (kWh)	1.041	Lanketa propioa
Aurrezpen totala (kWh)	26.035	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 0 €-koa da, neurri hau praktika onetan barneratzen baita.

<sup>5</sup> Batz besteko datua, Valenziako komunitateko "Guía de Ahorro y eficiencia energética en locales comerciales" etik hartua.

### 53. Neurria: Kondentsazio galdarak instalatu Hondarribiko zerbitzu-lokaletan

**Neurriaren helburua:** 3 zerbitzutan kondentsazio galdaren instalazioa proposatzen da.

**Abiapuntua:** Zerbitzuetarako (tabernak) batz besteko kontsumotik abiatuz, 315 kWhPCS/m<sup>2</sup>-ko (Gipuzkoako lokal desberdinetan egindako ikerketa energetikoak egin ondoren lortutako batz besteko kontsumoa) eta lokalen batz besteko azalera 80 m<sup>2</sup>/lokalekoa dela suposatuz. Berokuntzan batz besteko kontsumoa 25.220 kWhPCS-koa izango da.

**Neurriaren hipotesia:** kondentsazio galdarak instalatzeagatik, %25eko aurrezpena suposatuko da.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeko lehenengo denboraldian (2007-2012) ez da neurria aurrera eramango, 2 zerbitzutan epe ertainean (2013-2016) eta zerbitzu batean epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaion adierazlea, instalaturiko kondentsazio galdara kopurua izango da.

**Neurriaren emaitza:** neurria aplikatu ondoren, etxebizitzetan batz besteko kontsumo termikoa 18.900 kWhPCS-koa da eta aurrezpena zerbitzuko 6.300 kWhPCS-koa izango da. Aurrezpen totala, 18.900 kWhPCS-koa izango da 2020 urtean.

Hurrengo taulan, gaur egungo kontsumoa, neurria aplikatu ondorengo kontsumoa eta aurrezpen unitario eta totala banakatzen dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Neurria aplikatuko duten zerbitzu kopurua (Helburua)	3	Hondarribiko Udala
Zerbitzuen batz besteko kontsumo termikoa (kWhPCS)	25.200	Zerbitzuetako auditoretzako
Aurrezpena	%25,0	Lanketa propioa
Aurrezpen termikoa zerbitzuko (kWh/zerbitzuko)	6.300	Lanketa propioa
Aurrezpen termiko totala (kWhPCS)	18.900	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 4.800 €-koa da.

54. Neurria: Zerbitzu eraikinen barne temperatura mugatu: Udan ez da eraikinetako temperatura 26 °C-tik jaitsiko eta neguan, berriz, ez da 21°C baino altuagoa izango.

**Neurriaren helburua:** 5 zerbitzu lokaletan temperaturak mugatzea proposatzen da.

**Abiapuntua:** aurreko neurriak kontutan hartuta, gaur eguneko kontsumoa berokuntzan 18.900 kWh<sub>PCS</sub>-koa da.

**Neurriaren hipotesia:** murrizturiko gradu bakoitzeko, %8ko aurrezpena suposatzen da. 2°C jaitsiko direla suposatu da.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeko lehenengo denboraldian (2007-2012) ez da neurria aurrera eramango, 3 zerbitzutan epe ertainean (2013-2016) eta 2 zerbitzutan epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaizkion adierazleak, neurria aurrera eraman duten zerbitzu kopurua eta kontsumo energetikoa izango dira.

**Neurriaren emaitza:** neurria aplikatu ondoren, etxebizitzaren batz besteko kontsumo termikoa 15.997 kWh<sub>PCS</sub>-koa da eta aurrezpena etxebizitzako 2.903 kWh<sub>PCS</sub>-koa izango da. Aurrezpen totala 14.515 kWh<sub>PCS</sub>-koa izango da 2020 urtean.

Hurrengo taulan, gaur egungo kontsumoa, neurria aplikatu ondorengo kontsumoa eta aurrezpen unitario eta totala banakatzen dira..

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Berokuntzan batz besteko kontsumo termikoa (kWhPCS)	18.900	Lanketa propioa
Aurrezpena murrizturiko °C-ko	%8	EVE-IDAE
Etxebizitzaren gaur egungo temperatura (°C)	23	Lanketa propioa
Proposatutako temperatura (°C)	21	EVE-IDAE
Aurrezpen termikoa zerbitzuko (kWhPCS/zerbitzu)	2.903	Lanketa propioa
Zerbitzuak guztira (Helburua)	5	Hondarribiko Udala
Aurrezpen termiko totala (kWhPCS)	14.515	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** honen kostua 1.000 €-koa da.



55. Neurria: Hondarribiko zerbitzu-lokaletako edo eraikinetako leiho zaharren berrikuntza gauzatu, kristal bikoitzeak ipiniaz eta inguruko arotzeria berrituz.

**Neurriaren helburua:** 25 zerbitzutan leiho zaharren berrikuntza proposatzen da.

**Abiapuntua:** aurreko neurriak kontutan hartuta, gaur eguneko kontsumoa berokuntzan 15.997 kWh<sub>PCS</sub>-koa da.

**Neurriaren hipotesia:** leiho Zaharrak, berriengatik aldatzeak, %20ko aurrezpena suposatuko da.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeke lehenengo denboraldian (2007-2012) neurria 5 zerbitzutan eramango da aurrera, 10 zerbitzutan epe ertainean (2013-2016) eta 10 zerbitzutan epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaizkion adierazleak, leihoak aldatu dituzten zerbitzu kopurua, aldatutako azalera eta kontsumo energetikoa izango dira

**Neurriaren emaitza:** neurria aplikatu ondoren, zerbitzuen batz besteko kontsumo termikoa 12.978 kWh<sub>PCS</sub>-koa da eta aurrezpena zerbitzuko 3.199 kWh<sub>PCS</sub>-koa izango da. Aurrezpen totala, 79.975 kWh<sub>PCS</sub>-koa izango da 2020 urtean.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Neurria aplikatuko duten zerbitzu kopurua	25	Lanketa propioa
Zerbitzuko azalera (m2)	9	Lanketa propioa
Aurrezpena	%20,0	RENOVE Plana
Berokuntzan batz besteko kontsumo termikoa (kWhPCS)	15.997	IDAE
Aurrezpen termikoa/zerbitzuko (kWhPCS)	3.199	Lanketa propioa
Aurrezpen termikoa/azalerako (kWhPCS/m2)	355	Lanketa propioa
Aurrezpen termiko totala (kWhPCS)	79.975	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 56.250 €-koa da.



**56. Neurria: Tresna elektrikoak erosteko orduan, energia eraginkortasun irizpideak barneratu.**

**Neurriaren helburua:** 5 zerbitzutan ekipo elektrikoak, ekipo berri eta eraginkorragoengatik aldatzea proposatzen da.

**Abiapuntua:** ekipo elektrikoetan gaur egun dagoen kontsumoa 2.152 kWh-koa da.

**Neurriaren hipotesia:** ekipo berria instalatzerako orduan, %45eko aurrezpena suposatzen da.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeke lehenengo denboraldian (2007-2012) ez da neurria aurrera eramango, 3 zerbitzutan epe ertainean (2013-2016) eta 2 zerbitzutan epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaizkion adierazleak, aldatutako etxetresna kopurua eta kontsumo energetikoa izango dira.

**Neurriaren emaitza:** neurria aplikatu ondoren, ekipo elektrikoaren kontsumoa 1.184 kWh/urtekoa izango da. Beraz aurrezpena etxebizitzako 968kWh/urtekoa izango da eta aurrezpen totala 4.841 kWh/urtekoa 2020 urtean.

Hurrengo taulan, neurria aplikatuko duten etxe kopurua, gaur egungo kontsumoa, neurria aplikatu ondorengo kontsumoa eta aurrezpen unitario eta totala banakatzen dira.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Neurria aplikaturiko zerbitzu kopurua	5	Hondarribiko udala
Zerbitzu bakoitzean aldatutako ekipo kopurua	5	Lanketa propioa
Zerbitzuen batz besteko kontsumoa etxetresnetan (kWh)	2.152	IDAE
Aurrezpena	%45,0	IDAE
Zerbitzu bakoitzeko aurrezpena (kWh)	968	Lanketa propioa
Aurrezpen elektriko totala (kWh)	4.841	Lanketa propioa
Aurrezpena etxetresnako (kWh/etxetresna)	193,64	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 9.740€-koa da.





**57. Neurria: Energia kontsumo arduratsuan eta energia eraginkortasunean hezi eta sentsibilizatu zerbitzuetako langileak.**

**Neurriaren helburua:** zerbitzuetako arduradunak, energia eraginkortasuna kontzeptu bezala barneratzea eta praktikara eramatea, aurretik deskribatutako neurriak burutuz.

**Abiapuntua:** gaur egun ez da jardunaldirik egiten.

**Hipotesia:** neurrian aurrera eramango diren puntuak hurrengoak dira,

Argi naturalaren onura sustatzeko neurriak martxan jarri.

- Kontsumo baxuko argiztapenari buruzko informazio banatu, argiztapen hauen onurak azalduz.
- Etxebizitzetako itxitura egokien buruzko informazioa eman, kristal bikoitzdun leiho eta isolamendu egokia duten fatxadetan oinarrituz.
- Berokuntza sistemetan dauden hobekuntzen inguruan informatu: kondentsazio galdarak (galdara arruntak baino errendimendu hobeko batekin), berogailuetako balbula termostatikoak...
- -Tresna elektrikoak erostean, kontuan hartu beharreko faktoreak zeintzuk diren azaldu, ekipoaren klase energetikoaren garrantzia azalduz.
- Energia berriztagarrien onurak azaldu. Instalazioa burutzeko jarraitu beharreko pausuak, instalazioari buruzko informazio orokorra.
- Burutuko diren ekintzak jarraian zehazten dira:
  - -Praktika onen gida.
  - -Publizitazio triptiko bat.
  - -Tailerrak.

**Egutegia eta maiztasuna:** kanpainak bi urterik behin egingo dira.

**Adierazlea:** adierazleak egindako hitzaldiak eta joandako jendea izango dira.

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 6.500 €-koa izango da.



## Energi berriztagarriak

### 58. Neurria: Plaka fotovoltaikoak instalatu zerbitzu lokaletan

**Neurriaren helburua:** 4 zerbitzutan plaka fotovoltaikoen instalazioa proposatzen da.

**Abiapuntua:** gaur egun ez dago plaka fotovoltaikorik.

**Neurriaren hipotesia:** instalazio bakoitzak emandako energia elektrikoa, 9.414 kWh-koa izango da. Instalazioak, 10 kWp-koak dira.

**Egutegia eta maiztasuna:** neurri honen ezarpena mailaz mailakoa izango da, EIEPeko lehenengo denboraldian (2007-2012) neurria 2 zerbitzutan eramango da aurrera, zerbitzu batean epe ertainean (2013-2016) eta beste zerbitzu batean epe luzean (2017-2020).

**Adierazlea:** neurri honen jarraipena egiteko esleitzen zaion adierazlea, instalatuko plaka kopurua izango da

**Neurriaren emaitza:** produtztutako energia elektriko totala 37.656 kWh-koa da.

Hurrengo taulan, aurrezpena ikus daiteke.

Kontzeptua	Balioa	Iturria
Instalazio kopurua	4	Hondarribiko udala
Plaken potentzia (kWp)	10	Hondarribiko udala
Produtztutako energia (kWh)	9.414	Lanketa propioa
Sortutako energia (kWh/kWp)	941,4	Lanketa propioa
Produtztutako energia totala (kWh)	37.656	Lanketa propioa
Salmenta prezioa (c€/kWh)	0,14	Lanketa propioa

**Neurriaren kostua:** neurri honen kostua 100.000€-koa da.



## Ura

59. Neurria: Uraren aurrezpena bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak zerbitzu lokaletan.

Honako neurria elementu sustatzaile moduan proposatzen da, zerbitzuetako langileek zentzuzko ur kontsumoa eduki dezaten.

60. Neurria: Hondakinen sorrera murriztearen aldeko sentsibilizazio kanpainak Zerbitzu lokaletan.

Honako neurria elementu sustatzaile moduan proposatzen da, zerbitzuetako langileek zentzuzko ur kontsumoa eduki dezaten.

## 6. Neurrien lehentasuna zehazteko ezarritako irizpideak

EIEPan agertzen diren neurriei lehentasun maila jartzeko nahian, adierazle desberdinak erabiliziren : ingurumen adierazleak eta adierazle ekonomikoak. Adierazle bakoitzari puntuazio zehatz bat ezarri zitzaion, neurriek lorturiko balioen arabera. Hurrengo taulan puntuazio posibleak kontzeptuekiko adierazten dira.

Adierazlea	Balioa	Puntuak
<b>Kostua</b>	<10.000 €	10
(€)	10.000-50.000 €	5
	>50.000€	0
<b>EMISIOAK SAHIESTEKO POTENTZIALA (2020an)</b>	<10	0
(tCO <sub>2</sub> b)	10-50	5
	>50	10
<b>EMISIOAK SAHIESTEKO POTENTZIALA (EIEParen denboraldian)</b>	<100	0
(tCO <sub>2</sub> b)	100-500	5
	>500	10
<b>KOSTU-ERAGINKORTASUN (EIEParen denboraldian)</b>	<10	10
Kostua/ tCO <sub>2</sub> b	10-100	5
	>100	0
<b>FINANTZAKETA</b>	BAI	5
	EZ	0
<b>BERRESKURATZE TASA SINPLEA</b>	<5	10
(urteak)	5-15	5
	>15	0

Neurri bakoitzerako puntuazio totala eskuratzeko adierazle bakoitzaren puntuazioak gehitu ziren.

Azkenik, neurri bakoitzerako puntuazio minimoa eta maximoa bilatu ziren eta bien artean bost balio-tarte sortu ziren. Sailkapenean, lehentasun maximoa puntuazio handiena duen balio-tarteari eman zion eta puntuazio txikiena duenari lehentasun minimoa. Horrela, sortutako taldeak ondokoak izan ziren: 1 lehentasuna, 2 lehentasuna, 3 lehentasuna, 4 lehentasuna eta 5 lehentasuna. Neurri bakoitzari balio-tarte bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera lehentasun talde bat egokitu zitzaion.



## 7. Isurpen inbentarioa: 2020

2020 urteko isurpen inbentarioa burutzeko, joera eszenatokoaren garapenean kontuan harturiko ekonomia hasuntza datuak kontuan hartu dira eta hauetan oinarrituz, 5. Udalsarea 21 Lan-Koadernoko lan-metodologia jarraitu da arlo eta ildo baokitzeko NEG isurpenak estimatzeko.